

ORDENANTZA FISKALA, IBILGAILUAK ESPALOIETAN BARNA SARTZEKO ETA EREMU PUBLIKOAN APARKALEKU ESKLUSIBO GISARA ERABILTZEKO, IBILGAILUAK GELDITZEKO ETA EDOZEIN MOTATAKO SALGAIEN ZAMALANETARAKO TOKIA ERRESERBATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

20. ordenantza

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehen Tituluko IV. Kapituluako 7. Atalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 12. artikuluan emandako baimenaren babesean ezarri da.

Zergapeko egitatea

2. artikulua.- Zergapeko egitatea hau da: ibilgailuak espaloietan barna sartzea eta eremu publikoan tokia erreserbatzea aparkatzeko leku eskusibo gisa erabiltzeko, ibilgailuak gelditzeko eta edozein motatako salgaien zamalanetarako.

Zerga ordaintzeko betebeharra

3. artikulua.- Ordenantza honetan ezarritako tasak urtero sortuko dira urtarrilaren 1ean, eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Tasa sei hilabetez behin ordaindu beharko da Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapenerako Ordenantza Fiskalean ezarritako epe eta baldintzetan.

Aprobetxamenduak urte barnean hasi edo bukatzen diren kasuetan, horren arabera moldatuko da zergaldia, halako eran non kuota hiruhileko naturalen arabera hainbanatuko baita, hasierako edo bukaerako ere barne harturik.

Nork ordaindu behar

4. artikulua.- Tasa ordaintzera beharturik daude, zergadun gisara, pertsona fisiko zein juridikoak eta, nortasun juridikorik izan gabe ere, batasun ekonomiko edo ondare banandua osatzen duten entitateak, baldin eta, Ordenantza honen 2. artikuluan aurreikusitako kasuetako bati jarraikiz, tokiko jabari publikoa beren alde erabili edo ustiatzen badute edo hari onura ateratzen badiote.

Ibilgailuak espaloietan barna sartzeko aprobetxamendu bereziaren kasuetan, zergadunaren ordeko izanen dira ibilgailuendako sarrera horien sarbide diren finka eta lokalen jabeak. Horiek zilegi izanen dute onuradunei kuotak ordainaraztea.

Hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek egindako erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziengatik ordaindu beharreko tasek dagokien ordenantza fiskalari edo aplikagarri zaizkien udal-erabakiei eginen diete men.

Oinarria, tasak eta tarifak

5. artikulua.- 1) Espaloietan barnako pasabideen aprobetxamenduaren kasuan, Ordenantza fiskal honen eranskinean ezarritako tarifak aplikatzeko oinarri gisa erabiltzeko pasabidearen zabalera hartuko da, bai eta toki-kopurua eta kalearen kategoria fiskala ere, kasuan-kasuan.

2) Lekua erreserbatzen den kasuetan, erreserbatutako lekuaren luzera eta kalearen kategoria fiskala hartuko dira oinarri.

6. artikulua.- Aplikatu beharreko kuotak Ordenantza fiskal honen eranskinean jaso dira.

Kudeaketa-arauak

7. artikulua.- Lizentziak emateko onetsitako Arauan xedatutakoak arautuko du lizentziak ematea.

8. artikulua.- Baldin eta, ibilgailuak espaloietan barna pasatzea errazte aldera, zintarria beheratzeko obrak egin behar badira, Erabilera publikoko lurretan zangak, laginketak eta zuloak egiteko eta eremu publikoan zoladura edo espaloiak mugitzeko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskalean ezarritako tasak ordaindu beharko dira, eta aipatu ordenantzaren izapide laburreko lizentzien eskarietarako ezarri den kudeaketa- eta kobrantza-prozedura aplikatuko da.

9. artikulua.- Seinalezatzeko plakak Udalak emanen ditu, behin IV. epigrafean ezarritako tasa ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu eta gero. Lizentziaren titularraren eginkizuna izanen da diskoak paratu, mantendu, behar izanez gero berriro paratu eta, erabileraren aprobetxamendua bukatutakoan, horiek kentzea.

10. artikulua.- Lizentziaren titularrak beharturik daude, erabilera edo aprobetxamendua bukatu eta gero, erroldan baja ematera, eta zintarria eta espaloia lehengo hartara bueltatzera. Era berean, seinalezatze-plakak ere kendu beharko dituzte. Bestela, ulertuko da aprobetxamenduak segitu egiten duela zintarria eta espaloia lehengora bueltatu eta plakak kendu arte.

11. artikulua.- Udaleko Ikuskaritzako eta Udaltzaingoko zerbitzuek Udalarari jakinaraziko diote pasabiderako lizentziarik gabe aprobetxamendu hori egiten ari diren lokal edo espazio ooren berri.

12. artikulua.- Ordenantza honetan espaloietan barnako aldi baterako pasabideetarako, aldi baterako leku-erreserbetarako eta seinaleztatze-plaketarako ezarritako tasak (Tarifa-eranskinaren III. eta IV. epigrafeak) Herritarren Segurtasuneko Alorreko bulegoetan jarritako eskudirutako kutxan ordaintzen ahalko dira.

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA – IBILGAILUEN PASABIDEAK.

I.1. Etxebizitzetara lotutako garajeak, metro lineal bakoitzeko, urtean:

	0. pol.	1. pol.	2. pol.	3. pol.	4. pol.	5. pol.	6. pol.	7. pol.	8. pol.	9. pol.	10. pol.	11. eta 12. poligonoak
1 eta 2 ibilgailu bitarte	92,74	82,43	68,69	56,10	45,80	36,64	30,91	26,33	22,83	21,69	20,55	19,41
3 eta 5 ibilgailu bitarte	93,88	84,72	69,84	57,24	46,94	37,78	30,91	27,48	23,21	22,05	20,89	19,73
6 eta 10 ibilgailu bitarte	154,56	137,39	114,49	92,74	70,46	52,55	38,22	29,86	23,88	22,69	21,50	20,30
11 eta 25 ibilgailu bitarte	179,58	160,34	128,27	100,05	75,68	56,44	41,05	32,07	25,65	24,37	23,09	21,81
26 eta 50 ibilgailu bitarte	203,33	181,55	145,24	113,29	85,69	63,90	46,48	36,31	29,05	27,59	26,14	24,69
51 eta 100 ibilgailu bitarte	243,66	217,55	174,04	135,75	102,68	76,58	55,69	43,51	34,81	33,07	31,33	29,59
101 eta 150 ibilgailu bitarte	302,15	269,78	215,82	168,34	127,33	94,96	69,06	53,96	43,16	41,01	38,85	36,69
150 ibilgailutik gora	405,29	361,79	292,28	227,98	172,45	128,61	93,53	73,07	58,46	55,53	52,61	49,69

I.2. Garaje pribatuak, merkataritza- eta industria-ibilgailuentzat, metro lineal bakoitzeko, urtean:

	0. poligonoa				1. poligonoa				2. poligonoa			
	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea
1 eta 5 ibilgailu bitarte	92,74	76,71	65,26	52,67	82,43	69,84	59,53	50,38	69,84	59,53	51,52	44,65
6 eta 10 ibilgailu bitarte	145,40	121,36	100,75	81,29	137,39	115,63	98,46	82,43	115,63	97,32	85,87	72,13
11 eta 25 ibilgailu bitarte	243,86	206,08	179,75	152,27	217,53	184,33	160,28	135,10	184,33	158,00	138,53	119,07
26 eta 50 ibilgailu bitarte	366,00	305,00	254,17	203,33	326,79	272,32	226,93	181,55	261,43	217,86	181,55	145,24
50 ibilgailutik gora	440,78	372,09	322,86	273,63	392,70	333,16	298,82	243,86	333,16	285,08	249,59	214,09

2015. urteko Ordenantza Fiskalak

	3. poligonoa				4. poligonoa				5. poligonoa			
	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea
1 eta 5 ibilgailu bitarte	58,39	50,38	44,65	37,78	49,23	41,22	37,78	33,20	40,07	35,49	32,06	29,77
6 eta 10 ibilgailu bitarte	96,17	82,43	72,13	61,82	79,00	69,84	60,68	53,81	66,40	58,39	52,67	46,94
11 eta 25 ibilgailu bitarte	155,71	135,10	119,07	100,05	131,66	113,52	94,60	75,68	101,59	84,66	70,55	56,44
26 eta 50 ibilgailu bitarte	203,92	169,93	141,61	113,29	154,24	128,53	107,11	85,69	115,03	95,86	79,88	63,90
50 ibilgailutik gora	280,50	242,72	215,24	177,36	235,85	201,23	167,69	134,15	180,09	150,07	125,06	100,05

	6. poligonoa				7. poligonoa				8. poligonoa			
	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea
1 eta 5 ibilgailu bitarte	34,35	30,91	28,62	26,33	30,91	28,62	26,33	24,04	28,62	26,33	25,19	22,83
6 eta 10 ibilgailu bitarte	56,10	50,38	45,80	38,22	49,23	44,79	37,32	29,86	42,99	35,83	29,86	23,88
11 eta 25 ibilgailu bitarte	73,88	61,57	51,31	41,05	57,72	48,10	40,09	32,07	46,18	38,48	32,07	25,65
26 eta 50 ibilgailu bitarte	83,66	69,71	58,09	46,48	65,36	54,47	45,39	36,31	52,29	43,57	36,31	29,05
50 ibilgailutik gora	130,97	109,14	90,95	72,76	102,32	85,27	71,06	56,85	81,86	68,21	56,85	45,48

	9. poligonoa				10. poligonoa				11. eta 12. poligonoak			
	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea
1 eta 5 ibilgailu bitarte	27,48	26,33	24,04	21,69	27,48	25,19	24,04	20,55	26,33	25,19	24,04	19,41
6 eta 10 ibilgailu bitarte	40,84	34,04	28,36	22,69	38,70	32,25	26,87	21,50	36,55	30,45	25,38	20,30
11 eta 25 ibilgailu bitarte	43,87	36,56	30,46	24,37	41,56	34,64	28,86	23,09	39,25	32,71	27,26	21,81
26 eta 50 ibilgailu bitarte	49,67	41,39	34,49	27,59	47,06	39,22	32,68	26,14	44,44	37,04	30,86	24,69
50 ibilgailutik gora	77,76	64,80	54,00	43,20	73,68	61,40	51,16	40,93	69,58	57,98	48,32	38,66

Ibilgailu bat 10 tokiko edo zatiki bakoitzeko kalkulatzen da, auto-omnibusen kasuan, eta gehienezko zamako 2 tona metrikoko edo zatiki bakoitzeko, kamioien edo arrasteko ibilgailuen kasuan.

I.3. Ibilgailuak konpondu, garbitu edo horien olioak aldatzeko lantegiak, edozein eratakoak direla ere, gasolina-zerbitzuguneak eta erakustokiak, metro lineal bakoitzeko kalkulatuta, urtean:

	0. pol.	1. pol.	2. pol.	3. pol.	4. pol.	5. pol.	6. pol.	7. pol.	8. pol.	9. pol.	10. pol.	11 eta 12 pol.
1. aldea	255,31	254,17	210,66	171,73	138,53	113,34	84,61	66,10	52,88	50,24	47,60	44,95
2. aldea	211,81	210,66	175,17	144,26	117,92	96,95	70,51	55,09	44,07	41,86	39,66	37,46
3. aldea	178,60	177,46	149,98	123,65	103,04	80,79	58,76	45,90	36,72	34,89	33,05	31,22
4. aldea	145,40	144,26	122,50	104,19	86,67	64,63	47,01	36,72	29,38	27,91	26,44	24,97

2015. urteko Ordenantza Fiskalak

I.4. Garaje publikoak, metro lineal bakoitzeko kalkulaturak, urtean:

	0. poligonoa				1. poligonoa				2. poligonoa			
	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea
50 ibilgailu bitarte	319,46	266,22	221,85	177,48	285,23	237,70	198,08	158,46	228,19	190,16	158,46	126,77
50 ibilgailutik gora	392,70	332,02	286,22	241,57	390,41	329,73	285,08	240,43	329,73	281,64	246,15	210,66

	3. poligonoa				4. poligonoa				5. poligonoa			
	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea
50 ibilgailu bitarte	177,99	148,32	123,60	98,88	134,63	112,19	93,49	74,79	100,40	83,67	69,72	55,78
50 ibilgailutik gora	277,06	239,28	211,81	177,36	241,48	201,23	167,69	134,15	180,09	150,07	125,06	100,05

	6. poligonoa				7. poligonoa				8. poligonoa			
	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea
50 ibilgailu bitarte	73,02	60,85	50,71	40,57	57,05	47,54	39,62	31,69	45,64	38,03	31,69	25,35
50 ibilgailutik gora	130,97	109,14	90,95	72,76	102,32	85,27	71,06	56,85	81,86	68,21	56,85	45,48

	9. poligonoa				10. poligonoa				11. eta 12. poligonoak			
	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea	1. aldea	2. aldea	3. aldea	4. aldea
50 ibilgailu bitarte	43,35	36,13	30,11	24,09	41,08	34,23	28,52	22,82	38,79	32,33	26,94	21,55
50 ibilgailutik gora	77,76	64,80	54,00	43,20	73,68	61,40	51,16	40,93	69,58	57,98	48,32	38,66

I.5. Orduka aparkatzeko lizentziak:

I.1., I.2., I.3. eta I.4. epigrafeei dagozkien tarifak aplikatuko dira, % 25 murriztuta.

I.6. Pasabidearen pareko espaloian edo gune publikoan aparkatzeko murriztapen edo debekurik eskatzen ez duten lizentziak, halako mugaketak aurretik jarriak direlako, eta mugaketok hamabost egunez behin edo, oro har, aldizka egiten badira ere:

I.1., I.2., I.3. eta I.4. epigrafeetako tarifak % 50 murriztuko dira pasabide iraunkorren kasuan, eta I.5. epigrafeetakoak ere, ordutegia duten pasabideen kasuan.

II. EPIGRAFEA - TOKIA ERRESERBATZEA.

II. 1. Erreserba iraunkorra metro lineal bakoitzeko, urtean:

	0. pol.	1. pol.	2. pol.	3. pol.	4. pol.	5. pol.	6. pol.	7. pol.	8. pol.	9. pol.	10. pol.	11. eta 12. pol.
1. aldea	141,97	140,82	120,21	103,04	88,16	75,56	64,99	50,77	40,62	38,58	36,56	34,52
2. aldea	121,36	120,21	104,19	90,45	77,85	68,69	54,15	42,31	33,85	32,15	30,46	28,77
3. aldea	106,48	106,48	92,74	81,29	70,98	62,05	45,13	35,26	28,21	26,79	25,39	23,98
4. aldea	91,59	90,45	80,14	72,13	64,11	49,64	36,10	28,21	22,56	21,44	20,31	19,18

Baldin eta erreserba baimendurik badago txandaka aparkatzeko debekua duen kale bateko bi espaloietan, tarifa alde bakar baten neurriaren gainean kalkulatu da, eta zehazki, luzera handiena duen aldearen neurriaren gainean.

II.2. Ordutegi mugatuko erreserba: II.1. epigrafeko tarifak aplikatuko dira, % 25 murriztuta.

III. EPIGRAFEA - ESPALOIETAN BARNAKO PASABIDE ETA TOKI-ERRESERBAK, ALDI BATERAKO.

III.1. Espaloietan barnako pasabideak, aldi baterako. Aldi baterako obra edo jarduketa baterako espaloietan barnako pasabideen kasuan, tasa honako hauen batura izanen da:

a) Baimendutako pasabidea	13,55 euro
b) Pasabideak okupatzen duen metro lineal bakoitzeko: I.3. edota I.5. epigrafeetako tarifak aplikatuko dira, kasuan-kasuan, eta hainbanaketa egingen da aprobetxamendu-egunen arabera.	

III.2. Aldi baterako leku-erreserbak. Aldi baterako obra edo jarduketa bat dela medio egin beharreko toki-erreserben kasuan, tasa honako hauen batura izanen da:

a) Baimendutako erreserba	13,55 euro
b) Erreserbak okupatzen duen metro lineal bakoitzeko: II.1 eta II.2 epigrafeetako tarifak aplikatuko dira kasuan-kasuan, eta hainbanaketa egingen da aprobetxamendu-egunen arabera.	

IV. EPIGRAFEA - SEINALEZTATZE-PLAKAK.

Pasabideak seinaleztatzeko plaka bakoitzeko	31,35 euro
---	------------